

## “BIDEAN PUNTO NET”

Danok goaz “Bidean”  
hasi ta amaitu,  
“Bidean” luzea da  
ez, gero, gogaitu.  
Noiznahi erronka latzak  
astintzen bazaitu,  
jarrai, “Bidean” ez da  
oraindik amaitu.

“Bidean punto net” hau  
Oruen jaioa,  
bizia batu ahala  
bizi-jarioa.  
Herria, euskera ta  
giza-balioa...  
argi-emoile dala  
Ebanjelioa.

Otoitz, Eukaristia,  
fedea ta lana,  
batu, landu ta emon,  
hau gure afana.  
Erronkak gogoz jaso  
ta landuz ahal dana,  
eutsi bizigarria  
“Bidean” doana.

Danok gagoz “Bidean”  
garbi esateko,  
osasuntsu ta gaixo,  
bardin edadeko.  
Gau ta egun “Bidean”  
gagoz laguntzeko,  
jakin Oruen danok  
zaree etxeko.

Zeuganaino goatzuz  
“Bidean”-en bidez,  
sartu gure etxean  
ta bete senidez.  
Zeu zerbitzeko gagoz  
bihotz adiskidez,  
“Bidean” alkartzera  
ondo etor bitez!